IKAZTEGIETAKO UDALA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.

IKAZTEGIETAKO UDALERRIAN 1.3 GIZARTE NAHIZ HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ETA PREBENTZIO KOMUNITARIOA GARATU ETA GAUZATZEKO HELBURUA DUEN ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIAK.

1.-KONTESTUALIZAZIOA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusitako, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren abenduaren 5eko 12/2008 legearen helburuak honako hauek dira:

Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.
Babesgabetasun egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.
Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
Larrialdi egoerak eragiten dituzten pertsonen eta familia beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuetakoa, bere 22. Artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Sistemaren Katalogoa ezartzen du. Bertan jasota daude euskal administrazio publikoak eskaini behar dituzten prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak, eta administrazio bakoitzaren eskumenak zehazten ditu.

Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretuak, 2015eko urriaren 6an onartua, 33. Artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen antolaketa zehazte du. Bigarrengo atalean, 1.3 puntuan esaten du udalek eskumena izango dute "**Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua"** bermatu eta emateko.

Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3 zerbitzuaren fitxa)	
Definizioa eta helburua	Zerbitzu hau gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarrizko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke. Zerbitzu honen helburuak dira erabiltzaileak: a) autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetza egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzea eta garatzea; b) ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



	ordezkatzea	
Prestazioak	Gizarte-zerbitzuenak	Informazioa
		Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:
		Jarraipen-balioespena
		Lagun egite soziala
		Bitartekaritza – Bitartekotza
Hartzaileak	Egoera	a) Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak. b) Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak. c) Babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adingabeak; babesgabetasun-arriskuko egoera larrian dauden adingabeak edo helduak zerbitzu honetatik kanpo geratuko dira, pertsona horiek artatzea Familiekin Gizarte- eta Hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean Esku hartzeko Zerbitzuari dagozkiolako (2.7.3.1)
	Adina	Adin-mugarik gabe
Lortzeko baldintzak	Administrazioko ak	Ezin izango dira eskatu Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3. Artikuluan aipatzen diren titulartasun-baldintza orokorrak esku-hartzea adingabeei eragiten dieten babesgabetasun-arriskuko egoera arinak edo neurrizkoak artatzera bideratzen bada
	Premiazkoak	Hezkuntza-arloko babesa eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea honako helburu hauetako batekin: a) familia-bizikidetza hobetzea; b) familiako kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzea; c) eta/edo autonomiaz moldatzeko aukera erraztea edo ahalbidetzea

Baita kontuan eduki behar dira ere:

- ✓ 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- ✓ 64/2004 Dekretua, Euskal Herriko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharrak.
- ✓ 12/2008, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuak
- ✓ 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Euskal Herriko Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuak.
- ✓ 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, haur eta nerabeena.
- ✓ 12/2008 Legea, Familiei Laguntza.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



- ✓ 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia Pertsonala eta Ezinduentzako Laguntza sustatzeko.
- ✓ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- ✓ 230/2011, azaroak 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.
- ✓ 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko tresna.
- ✓ 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

Eta beste edozein xedapen, etorkizunean arau hauek aldatu edo garatuko dituztenak.

2.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea da Ikaztegietako udalerriko **Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua** garatzea, bertako oinarrizko Gizarte Zerbitzu Departamentuko irizpide, ikuskapen eta koordinaziopean.
Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua eskaintzeko, plegu hauetako zerbitzuen arloa arautzen duten xedapen legal guztiak aplikatuko dira.

Pleguen xedea, honako zerbitzuaren adjudikazioa arautzea da:

- ✓ Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, babesik eza arrisku egoeran dauden adin txikiko eta familiei zuzenduta (bakarka, taldeka eta komunitate mailan).
- ✓ Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsona helduei zuzenduta (bakarka, taldeka eta komunitate mailan)
- ✓ Gizarte eta Hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, gizarte mendekotasun arriskuan dauden pertsonei zuzenduta (bakarka, taldeka eta komunitate mailan)

3.- EDUKIA

3.1.- Definizioa
Zerbitzu honetan, gizarte hezkuntza laguntza eta arreta psikosoziala eskaintzen da banaka, familia eta komunitate mailan, eta prestazio hauek familiaren etxebizitzan zein komunitate ingurune irekian garatu daitezke.

3.2.- Zerbitzuen helburuak

Zerbitzu desberdinen Ikaztegietako erabiltzaileek:

- ✓ Autonomia bilakaera, gizartean txertatzea eta familia eta komunitate arloan elkarbizitza egokia lortzeko gaitasun pertsonalak hartu eta garatu dezaten (jarrerak, trebetasunak, ezagutzak, jarraibide, abileziak)

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



- ✓ Egokiak ez diren ohiturak, jokaerak, oharmen, sentimenduak eta jarrerak, egokiagoak diren beste batzuengatik ordezkatu.

Horrez gain:

- ✓ Haur eta nerabeen eta gizarte bazterkeria arrisku eta babesgabetasun egoeren baloraziorako ekipoan parte hartzea.
- ✓ Udal/komunitate zerbitzu guztiei beharraren arabera aholkularitza teknikoa eta orientazioa ematea.

3.3.- Zerbitzuaren hartzaileak

- ✓ Bazterketa arrisku arin edo eta moderatua duten pertsonak. Arrisku egoera larrian daudela balioetsitako pertsona helduak kanpo geratuko dira.
- ✓ Arrisku egoera arina edo moderatua bizi duten adin txikikoak. Arrisku egoera larrian dauden adin txikikoen harrera beste zerbitzu batzuei dagokie.
- ✓ Mendetasun arriskuan dauden pertsonak.

Hezkuntza eta/edo laguntza psikosoziala behar dutenak:

- ✓ Familia elkarbizitza hobetzea.
- ✓ Kideen zaintza eta arreta gaitasunak hobetzea.
- ✓ Komunikazio eta harremanetarako gaitasunak hobetzea.
- ✓ Eskubide eta zerbitzuen informazioa eskuratzea erraztu eta bultzatu.
- ✓ Autonomia erraztea edo garatzea.
- ✓ Gizarteratzea erraztea.

Zerbitzua, eragile, profesionalak eta Ikaztegietako komunitate barruko zerbitzuei ere zuzenduta egongo da (eskola, medikua, denbora librean lana egiten duten eragile, eta abar), adin txikikoak egoera arriskuan, eta/edo pertsona helduak bazterketa arrisku egoeran daudenean detektatu, prebenitu eta esku hartzeak egiteko aholkularitza behar dutenean.

Zerbitzua udalerriko oinarrizko Gizarte Zerbitzu departamentuko profesionalei laguntzeko ere izango da, adin txikikoen babesik eza egoerak eta gizarte bazterketa egoerak balioetsiko dituzte. (BALORA eta gizarte diagnostiko eta bazterketa balioesteko tresna)

3.4.- Eskaini beharreko zerbitzuak
Zerbitzu honen bitartez eskaini beharko diren lehentasunezko programa edo jarduerak, honako hauek izango dira:

- ✓ Informazio, Aholkularitza eta Orientazio zerbitzua, adin txikiko edo nerabeak dituzten familiei zuzenduta.
- ✓ Gizarte eta Heziketa Esku Hartze zerbitzua eta/edo Esku Hartze Psikosoziala, babesgabetasun-arriskuko egoera arinean edo neurrizkoan dauden adin txikiko eta familiekin.
- ✓ Gizarte eta Heziketa Esku Hartze zerbitzua inguru irekian adin txikikoekin.
- ✓ Gizarte eta Heziketa Esku Hartze zerbitzua eta/edo Esku Hartze Psikosoziala, gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsona heldu eta familiekin.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



- ✓ Gizarte eta Heziketa Esku Hartze zerbitzua eta/edo Esku Hartze Psikosoziala, gizarte mendetasun arriskuan dauden pertsona heldu eta familiekin.

Aurrez zehaztutako programen bitartez detektatutako beharren arabera, eta udalerriko oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ezarritako planifikazio eta jarraibideen arabera, ondorengo programa hauek ere eskainiko dira:

- ✓ Komunitate Prebentzio zerbitzua,
- ✓ taldeko programa edo jarduerak garatzeko, familia /guraso /adin txikikoekin eta abar, babes eza eta bazterketa esparruan, arlo defizitario edo sintomak lantzeko.
- ✓ Sentsibilizazio eta Formazio zerbitzua, Komunitate mailan, osasun, hezkuntza, aisia, denbora libre, kultura, hiritar segurtasuna, eta abar, zerbitzuen eta profesionalen sareko lana hobetzeko.
- ✓ Egoerak zehazteko balorazio zerbitzua. Adin txikikoen babesik eza egoerak eta gizarte bazterketa egoerak balioetsiko dituzte. (BALORA eta gizarte diagnostiko eta bazterketa balioesteko tresna) eta indarrean dauden balorazio tresnak.

3.5.- Esparru geografikoa

Jarduerako esparru geografikoa Ikaztegieta herria da eta erabilgarri dauden eta kontuan izan behar diren eskualdeko baliabide komunitarioak.

4.- JARDUKETA PROZEDURA

4.1 Zerbitzuaren menpekotasuna

Kontratatutako zerbitzua, udalerriko oinarrizko Gizarte Zerbitzu departamentuaren menpe egongo da, eta garatu behar diren prestazioen koordinazioa eta gainbegira dagokio bai departamentuko arduradun teknikoari, figura hau dagoenean, eta baita kasuari dagokion gizarte langileari ere.

4.2. Zerbitzuaren prestazioa

Gizarte Hezkuntza eta psikosozialeko taldeak zerbitzuari zuzendutako gune bat izango du. Pertsonei arreta eskainiko da udal egoitzetan, etxebizitzetan, inguru irekian, komunitatean edo esku hartzea dagokion pertsonak parte hartzen duen inguruetan.

4.3. Esku hartze mailak

Zerbitzuak bakarkako, familia eta taldeko esku hartzeak gauzatu behar ditu, eta hauek esparru familiarrean edo komunitarioan garatu ahal izango dira.

-Norbanakoekin. Hartzaileekin eta/edo beren familiekin: gizarte nahiz hezkuntza arloko proiektuak prestatuko dira, hartzaileengan eta/edo beren familiengan topatutako zailtasunak kontuan harturik.

-Taldeekin. Taldeentzako programak garatuko dira, haien hutsune edo zailtasunak zuzendu ahal izateko eta hartzaileengan eta/edo beren familiengan antzeko trebetasunak eta gaitasunak indartu ahal izateko.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



-Komunitatean. Gizarte-baliabideekin, hezkuntzakoekin, osasun arlokoekin eta abarrekin sarean egiten den lana sustatu eta hobetzeko helburua duten jarduerak garatuko dira, hori erraztuko duten alderdiak edo arrisku-faktoreen prebentzioa sustatuz.

4.4. Esku hartze prozedura

Esleipendun enpresak zerbitzuan integratutako prestazio guztiak garatuko ditu.

Udalerriko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erreferentziazko gizarte langileak bideratutako pertsona guztiak artatuko ditu, eta planteatu den Gizarte Hezkuntza eta psikosoziala esku hartzearen helburuak bere gain hartuko ditu. Eta honi buruz eskatzen diren balorazio eta txostenak egingo dira.

Jarraitu beharreko jarduera protokoloak, 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuetakoa eta 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan du esku hartze oinarrizko prozeduran oinarria.

- ✓ Gizarte Langilearen ardura da beharra jasotzea eta aztertzea eta beharra horren balorazioa egitea.
- ✓ Gizarte langileak ekipoko profesionalekin batera ikerketa-balorazioa egingo du.
- ✓ Arreta Pertsonalizatu Plana egingo dute, esku hartze arloak eta helburuak eta behar duen programa/zerbitzuak finkatuz.
- ✓ Kontratatutako taldearen profesionalak zehaztu eta aurrera eramango dute adostutako esku hartze plana.
- ✓ Taldeko profesionalei eta kasua dagokion gizarte langileari dagokie esku hartzearen eta adostutako helburuen jarraipenak eta ebaluazioa egitea.

Prozesu guztian, kontuan izango da:

- ✓ Egin behar den esku hartze zuzena, esku hartzean parte hartu behar duen pertsonaren parte hartze eta adostasunarekin arreta pertsonalaren planaren diseinua eta markatutako helburuekin (koordinazio bileretan parte hartuaz, konpainia eta profesional desberdinen aurkezpenetan.…).
- ✓ Esku hartze deribazio, jarraipen, amaiera txostenak, babesik eza eta bazterketa balorazio txostenak egin.
- ✓ Kasuen esku hartzean eta gainbegiraketan lan egiten duten profesional desberdinen koordinazioa.
- ✓ Esku hartze komunitarioa eta taldekoa.
- ✓ Genero ikuspegia.

Gizarte Zerbitzuetako dagokion Gizarte Langileak hauteman eta jasoko du eskaera hori. Nolanahi ere, baliteke kasu batzuetan hautemate hori eta hartzaileekin harremanetan jartzea zuzenean ekipoaren bitartez egitea, edo eskaera hori beste erakunde, profesional edo komunitateko kide batzuengandik etortzea. Horrelakoetan, Ekipoko koordinatzaileak Gizarte Zerbitzuetako dagokion profesionalari eman beharko dio horren berri, bidezkoak diren jarduerei ekin diezaieten.

Udalerriko Gizarte Zerbitzuetatik datozen esku-hartze eskaera guztiei erantzungo die ekipoak. Gehiegizko lan-zamagatik eskaera horri erantzuterik ez baldin badute, entitate

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.

esleipendunak dagokien Zerbitzu Sozialei jakinaraziko die, Sail honek, egoera aztertu ondoren, dagokion udal organoari adierazi diezaion neurri egokiak hartzea komeni den ala ez, arretaren lehentasunak finkatzeko irizpideak ere barne.

5.- LAN TALDEA

5.1.- Antolamendua

Zerbitzuaren emakidadunak, plegu honetan aurreikusitako zerbitzuak ahalik eta modurik onenean eman ahal izateko antolamendu-mailako egitura aurreikusi beharko du, pertsona erabiltzaileen bizi kalitatearen hobekuntza izango da helburu nagusia, eta horren emaitzak agerikoak izan beharko dira.

Plegu honetan zehaztutako zerbitzu bakoitzak beharrezko langile, azpiegitura eta ekipamendu kopurua izango du, era horretan, araudi aplikagarrian xedatutako gutxienekoak betez, zerbitzuak bermatzeko.

Koordinatzaile bat izango da lan taldea eta zerbitzuak kudeatzeko.

Lan taldeak behar duen formazio izango du aurrera eman behar diren zerbitzuak eta funtzioak modu egokian gauzatzeko.

Eskaintzan aurkeztu beharko du, lan taldearen antolaketa langile bakoitzaren funtzioak zehaztuz bai arreta zuzena eta zeharkakoa eskaintzen denean.

Ikaztegietako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamentua izango du kontratatutako zerbitzuen jarraipena eta kontrola egiteko ardura: horretarako, zehaztutako mekanismoak erabiliko dituzte, eta jarduerak etengabe ikustatuko dituzte.

5.2. Osaera

Esleipendun enpresak behar diren giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko, eta pertsonal horrek sortutako koste guztiak bere gain hartuz, eta inondik inora ez dute Udalarekin lotura administratiborik izango. Udala, egotzita egongo da enpresa eta bere pertsonalaren arteko harremanetatik sortutako ardurengatik.

Esleipendun taldeak behar diren giza baliabideak ziurtatu beharko ditu, Ikaztegietako Udalak eskaintzen duen zerbitzuaren arreta zuzena eta zeharkakoa eskaintzeko eta jarraipen egokia egiteko.

Zerbitzua eskainiko dituen langileei Gipuzkoako Esku-Hartze Sozialerako Hitzarmen Kolektiboaren jasotako baldintzak ezarriko zaizkio.

Zerbitzuan jardungo duen gizarte hezitzaileak ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte

Gizarte Hezitzailea:

- ✓ Gizarte Hezkuntzako Diplomatura edo Gradua izatea, edo Profesionalen Elkargoren batek gaitua izatea.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



- ✓ Familia eremuan, adingabeekin, Ingurune irekian edo/eta bazterketa egoeran dauden pertsonekin gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzeetan egiaztatutako gutxienez egiaztatutako 6 hilabeteko esperientzia.
- ✓ 3. hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea.
- ✓ Gipuzkoako Esku-Hartze Sozialerako Hitzarmen Kolektiboaren 2. Taldean jasotako baldintzak ezarriko zaizkio.

Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute langile guztiek, urtean behin.

<u>Koordinatzaile teknikoa eta enpresaren arduraduna</u>

Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko arduradun bat izendatuko du. Enpresako arduradun honek, gai administratiboei irtenbidea aurkitzeko ahalmena izango du.
Enpresak izendatutako arduradunak enpresak adierazitako komunikazio sistemaren bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du.
Enpresako harremanetarako arduraduna eta Udaleko Teknikaria arduradunaren artean koordinazio maiztasun finkoa adostea ere posible izango da.
Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du zeina arduratuko baita zerbitzuko hezitzaile zein Udaleko teknikari eta arduradun politikoekin koordinatzeaz.
Zerbitzuan jardungo duen koordinatzaileak ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko ditu:

- ✓ Gizarte Hezkuntzako Diplomatura edo Gradua izatea, edo Profesionalen Elkargoren batek gaitua izatea.
- ✓ Familia eremuan, adingabeekin, Ingurune irekian edo/eta bazterketa egoeran dauden pertsonekin gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzeko zerbitzuen kudeaketat eta koordinazioan gutxienez egiaztatutako 3 urteko esperientzia.

5.3. Profesionalen kopurua eta lanaldiak.

Profesionalek urtean zehar duten dedikazio-orduen kopurua hauxe da:

Hezitzailea: % 50-ko jardunaldia (796 ordu)
Koordinatzaile teknikoa: % 12,25-ko jardunaldia (199 ordu)

5.4. Eginkizunak.

Hezitzailearen funtzioak:

- ✓ Hezkuntza arloko interbentzio pertsonalizatua, indibiduala eta/edo familiarra.
- ✓ Haurren eta gazteen arrisku- eta babesgabetasun-egoeren balorazioa.
- ✓ Hezkuntza arloko interbentzio pertsonalizatua familia-unitateetan eta talde-unitateetan, familiekin eta adingabeekin.

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



- ✓ Interbentzio komunitarioa.
- ✓ Bazterkeria eta mendekotasun egoeren arrisku balorazioa.
- ✓ Koordinazioa departamentuko teknikariekin.
- ✓ Beste sistema komunitario eta/edo babes-sistema batzuekin koordinatzea.
- ✓ Zerbitzuari zerikusia duten prozesuetan parte hartzea: planifikazioa, ebaluaketa….

Koordinatzaileren funtzioak:

- ✓ Zerbitzuaren funtsatzea eta beharren ebaluazioa bideratu.
- ✓ Hezitzaileak hasierako eta etengabeko prestakuntzan lagundu.
- ✓ Esku-hartzearen analisi orokorra gidatu, esku-hartzearen jarraipena egin.
- ✓ Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzeko iniziatiba eta erantzukizuna bultzatu eta laguntza teknikoa eman.
- ✓ Beste eragile batzuekin koordinazioa eratu eta koordinazio-sistema definitzen lagundu: gizarte-zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, kultur zerbitzuak, etab.
- ✓ Hezitzailearekin koordinazioa eta jarraipena egin.
- ✓ Zerbitzuaren ardura duen teknikari eta arduradun politikoekin koordinatuta lan egin, Lan-zerbitzuaren antolaketa ahalbidetu, zereginak eta denborak zehaztu, etab.
- ✓ Hezitzaileei laguntza teknikoa eman, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez eta etengabeko hausnarketa ahalbidetuz.
- ✓ Hezitzaile zerbitzuko arlo desberdinen inguruan eginiko hausnarketak ahalbidetu.
- ✓ Zerbitzuaren plangintza-sistema finkatu.
- ✓ Zerbitzuaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatu.

Enpresa esleipenduna une oro arduratuko da taldeko profesionalen prestakuntza egokiaz, eta esku-hartzearen aurretiko gutxieneko esperientzia ziurtatuko du edozein arlotan (familia, ingurune irekia, bazterketa, mendekotasuna,...).

5.5. Subrogazioa.

Kontratu hau subrogazio gai izango da 2024ko apirilaren 15an GAOn (72) argitaraturiko Gipuzkoako IV Esku hartze sozialerako lan hitzarmenaren 52. Artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz.

Esleipenduna behartuta dago agiri osagarriko lan harremanen enplegatzaile modura subrogatzera; SPKTBaren 120 artikuluak xedaturikoari jarraiki, informazio hau eskatzen duten lizitatzaileei emango zaie, lan kostuen ebaluazioa egin ahal izateko.

5.6. Kontratatutako langileen eta bestelako agirien aurkezpena

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa esleipendunak, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Gizarte Segurantzan alta emana izatea egiaztatzen duen agiria.
- ✓ Lan kontratuaren kopia.
- ✓ Eskatu diren beharrezko prestakuntza betetzen dutenaren agiria (titulazioa, eskarmentua, hizkuntza gaitasuna…).
- ✓ Langileei zuzendutako urteko Formakuntza Plana.

6.-ORDUTEGIA ETA LAN EGUTEGIA

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



Pertsonari arreta goiz eta/edo arratsaldeko ordutegian eskainiko zaio, pertsona/familiaren ezaugarrien eta esku hartzearen arlo eta helburuen arabera.

Prestazioen ordutegia, egin beharreko esku hartzeen araberakoa izango da.

Ordutegia malgua izango da, astelehenetatik ostiralera bitartean, 08:00etatik-21:30, dauden beharren arabera.
Salbuespen modura eta beti , gizarte hezkuntza jardueren barruan, beste esku hartze ordutegiak ezarri ahal izango dira. Salbuespen modura, zerbitzua larunbatetan eskainiko da egoeraren behar bereziei erantzuna emanez.

Zerbitzua, urteko hamabi hilabetetan zehar indarrean mantenduko da, (Hezitzailearen oporraldi eta urteko jai egun epealdietan izan ezik). Urte hasieran esleipendunak egutegia aurkeztu eta Ikaztegietako Udal arduradunekin adostuko du.

Jaiegunak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratutakoak) Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak Gipuzkoako Lurraldearentzat ezartzen dituen 12 jaiegunak izango dira. Jaiegun horiei tokiko esparruko bi jaiegunak gehituko zaizkie.

Hala ere, lan honetarako Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari buruzko hitzarmen kolektiboa hartuko da oinarri.

7.- ERREKURTSO MATERIALAK

Ikaztegietako Udala, zerbitzuaren eta esleitutako enpresaren eskura jarriko dute zerbitzuaren garapenerako gune bat, hala erabakiz gero.

Enpresak ipini beharko du:

- ✓ Zerbitzuaren prestazio egokia bermatzen duten ekipo eta programa informatikoak.
- ✓ Zerbitzura zuzenki edo zeharka lotuta dauden profesional guztien eta gizarte zerbitzuetako departamentuko langileen artean komunikazioa bermatuko duten komunikazio eta kontrolerako baliabide teknikoak (langileentzat mugikorrak, posta elektronikoa …)
- ✓ Zerbitzu honen enpresa esleituak, erabiltzaileei arreta zuzena emateko beharrezko diren beste material eta zerbitzuen gastuak bere gain hartu beharko ditu, profesionalaren garraio gastuak barne, herritik kanpora egin beharreko akonpainamendua beharrezkoa balitz.

8.- LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Enpresak, taldea osatzen duten langileei zuzendutako urteko Formazio Plana aurkeztu beharko du.

9.- KONTRATUAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko

Diligentzia: Nik Idazkariak jartzen dut horrela jasota gera dadin baldintza plegu hau, 2025eko apirilaren 29ko udalbatzaren erabaki bidez onartua izan dela.
Ikaztegietan, 2025eko apirilaren 30ean.



dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 euskara gaitasun maila egiaztatu beharko du hezitzaileak.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duen pertsonak baduela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

10.- ZERBITZUAREN EBALUAZIO, JUSTIFIKAZIO ETA KONTROL SISTEMAK.

Zerbitzuaren ebaluaketa, hilero, hiru hilero, sei hilero eta urtero egingo da.

Esleitutako enpresak aurkeztu beharko duen txosten teknikoan zerbitzuaren ebaluaketa, justifikazio eta kontrol proposamena egingo du.

Behin proposamena balioetsi ondoren, esleitutako enpresarekin adostuko da aurkeztu beharreko dokumentazioa, garatuko diren ebaluaketa mailen arabera:

- ✓ Kontratuaren garapen orokorraren ebaluaketa.
- ✓ Zerbitzuaren metodologia eta antolakuntzaren ebaluaketa.
- ✓ Landutako kasuen eraginkortasunaren ebaluaketa.
- ✓ Esku hartzen duen lan taldearen gogobetetze ebaluaketa.

Halaber, aurkeztu beharreko dokumentazioaren barruan, honako hauek jaso beharko dira:

- ✓ Halaber, enpresak hilero aurkeztuko du esku hartzeko plan bakoitza gauzatzeko eskatzen diren jarduerekin eta materialarekin lotutako gastuaren justifikazioa.
- ✓ Urtero, enpresak jardueren memoria bat aurkeztuko du.